



Ogasuna

Aurrekontua

2014. urtean, Iruñeko Udalak hirugarren urtez jarraian berriro aurrekontu luzatuak izan zituen. Izan ere, 2013ko abenduaren 31n, alkatetzaren ebazpen bidez, 178.733.719 euroko aurrekontuak onetsi ziren. Erakunde autonomoei dagokienez, haur eskolen aurrekontu luzatuak 7.732.900 euro jo zuen, eta Hirigintza Gerentziari dagokionak, berriz, 2.706.200 euro.

Inbertsioei, guztira, 1,4 milioi euro esleitu zitzaizkien, indarrean zeuden konpromisoei erantzuteko. Kredituak aurreikusi ziren, Arantzadi eta Trinitarios parkeetako (188.000 euro) eta Txantreako Erretiratuen Elkarteko (120.000 euro) lanen azken likidazioetara bideratzeko; kredituak, halaber, lantegi-eskolen eta gizarte-enpleguaren jarduna bermatzeko (170.000 euro); aplikazioak eta teknologia berriak garatzeko (850.000 euro); eta semaforo-instalazioak birjartzeko (108.000 euro). Tarte ere aurreikusi zen, Udalak hartutako konpromiso batzuk gorantz doitzeko; hala nola, Udalak jabeen komunitateekin hartutakoak (udal-derramak); Herritarren Segurtasuneko komunikazio-matrizea; eremu publikoa mantentzea (420.000 euro); Etxabakoizko Liburutegi Publikoa (131.000 euro) eta San Saturnino kaleko etorkizuneko Turismo Bulegoa (159.000 euro).

Langileria-gastuen kapituluak 74.846.800 milioi euro jo zuen. 2. kapituluko gastu arruntak oro har luzatu ziren, 2014rako aurreikuspenak, konpromisoak eta aurrekontuak luzatzeak dakartzan mugak erreferentzia gisa harturik. Kapituluak 68,6 milioi euro jo zuen guztira. 4. kapituluaren jasotako diru-laguntzei dagokienez, betiere alde batera utzita Udalari lotutako entitateak (Hirigintza Gerentzia, Haur Eskolak, PCH, ANIMSA, ASIMEC eta Iruñerriko Mankomunitatea) finantzatzeko ematen direnak, eutsi egin zitzaizen diru-laguntzen plan estrategikoetako zenbatekoei. 4. kapituluaren emaitzaren zenbatekoa 20,8 milioi eurokoa izan zen. Interesen 3. kapituluaren beherantz doitu zen gainerako kapituluak koadratu ahal izateko, 2014ko konpromisoei erantzute aldera. Honako emaitza hauek izan ziren 3. kapituluaren, (Finantza-gastuak): 3.150.000 euro. Azkenik, 9. kapituluaren (finantza-pasiboak) 6.554.300 euroekin luzatu zen.

Urtean barna, hainbat aurrekontu-aldaketa onetsi ziren, 2014rako udal-kontusailetan igoera eragin zutenak. Horrela, urtarrian, 2,3 milioi euroko gastua onetsi zen Europako funtsen bidez finantzaturiko lanak egiteko; lanak Arga ibaian, adibidez (oinezkoendako zaldainak Arantzadin eta Sanduzelain, eta Arrotxapeko uholde-arriskua kontrolatzeko lanak Errotazar eta Zamargileak inguruetan, eta Fortius Paisaia Planerako). Otsailean, 6,4 milioi euroko diru-laguntzak onetsi ziren zaharberritzeko, eremu publikoan inbertsioak egiteko, Iruñeko ikastetxe publikoetan lanak egiteko, eremu hondatuetan eta kiroldegietan inbertsioak egiteko, eta udalaren bestelako kirol-lanetarako. Urrian, 3,2 milioi euroko diru-laguntzak onetsi ziren, besteak beste, zaharberritze-lanak egiteko eta familiei laguntzak emateko, mantenu eta gizarte-larrialdiko kontzeptuengatik. Azkenik, azaroan, 927.000 euroko gastua onetsi zen, gizarte-enplegua programako eta Fortius programako langileen gastuak finantzatzeko, betiere Nafarroako Gobernuaren eta Europar Batasunaren diru-laguntzei lotuak.

GRAFIKOA: IRUÑEKO UDALAREN BEHIN BETIKO AURREKONTUAREN BILAKAERA (milioika eurotan)

2010	2011	2012	2013	2014
258,8	239,7	199*	192,4	

* Alkatetzaren Ebazpenaz 2011ko abenduaren 31n onetsitako aurrekontuaren (178.733.719 euro) eta urtean Osoko Bilkurak onetsitako aldaketan (20.272.497,65 euro) batura da.

** Alkatetzaren Ebazpenaz 2012ko abenduaren 31n onetsitako aurrekontuaren (178.733.719 euro) eta urtean Osoko Bilkurak onetsitako aldaketan (13,7 milioi euro) batura da.

*** Alkatetzaren Ebazpenaz 2012ko abenduaren 31n onetsitako aurrekontuaren (178.733.719 euro) eta urtean Osoko Bilkurak onetsitako aldaketan (13,7 milioi euro) batura da.

Abenduaren 31n, Alkatetzaren ebazpen bidez, 2015eko aurrekontuetarako luzapena onetsi zen, eta Iruñeko Udalari 178 milioi euroko gastu-muga ezarri zitzaion. Halaber, Hirigintza Gerentziako eta Udalaren Haur Eskoletako aurrekontuen luzapenak onetsi ziren, bai eta indarreko gauzapean-oinarriak ere. Udalaren aurrekontu luzatuan diru-sarrerek 178.733.719 euro jo zuten, eta gastuek, berriz, 178.098.632 euro. Inbertsioetan, bakar-bakarrik luza daitezke berrezarpeneko inbertsioetat jo daitezkeen zenbateko errepikakorrak. Hainbat inbertsio daude aurreikusita, gastuak 2015. urtearen kargura irmoki konprometituta: Sanduzelain eta Arantzadin zaldainak eraikitzea (300.000 euro, jada esleituta dauden lan horien finantzaketaren % 80 Europar Batasunetik baitator); materiala erostea Lantegi eskoletarako nahiz Gizarte Enplegurako (136.000 euro ezinbestekoak Nafarroako Gobernuarekin sinaturiko hitzarmenetan konprometituriko lanak egiteko). Konpromisoek eragindako beste doikuntza batzuen artean, behar den zenbatekoa dago halaber sartuta 2012an atxikituriko aparteko ordainsariaren % 25 ordaintzeko.

2013ko Kontu Orokorra eta aurrekontuaren likidazioa

Iruñeko Udaleko tokiko sektore publikoak **153.946 euroko aurrekontu-superabitarekin itxi zuen 2013a** (Udala, Hirigintza Gerentzia, Haur Eskolak, Pamplona Centro Histórico, ASIMEC, ANIMSA eta Gayerre Antzokia Fundazioa), nahiz eta Hirigintza Gerentziak 7,2 milioi euroko gastuak egin zituen Diruzaintzako Gerakin Lotetsiarekin finantzatuak. 2013ko bukaeran, 6,9 milioi euroko diruzaintzako gerakin bateratua gastu orokorretarako.

2012an bezala, udal-kontuen luzapenak baldintzatu zuen 2013ko urtealdiaren gauzapena, eta era berean, aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko legearen printzipio eta irizpideen aplikazioak, eta baliabide publikoak eraginkortasunez erabiltzea kontrolatzeko neurrien jarraipenak. Udalak, bana beste, 42,5 eguneko epean ordaintzen die hornitzaileei. Egonkortasunari buruzko legearekin bat, Iruñeko Udalaren tokiko sektore publikoaren zorpertzea 109,9 milioi eurokoa zen. Zor bizi hori aurrekontuetako diru-sarrera arrunt bateratu guztien % 59 izan zen, eta lege gehiena % 110 da.

Iruñeko Udalak ia 1,3 milioi euroko diruzaintzako geldikin positiboarekin likidatu zuen bere 2013ko aurrekontua. Kontu-sailetan funtzionamendu-gastua kontrolatu izanari esker (adibidez, langilerian, ondasun eta zerbitzuen erosketan, eta diru-laguntza arruntetan), gastu hori 11 milioi euro inguru jaitsi zen, 2011tik aurrera. Iruñeko Udalaren aurrezpen gordina 18,7 milioikoa izan zen; hau da, diru-sarrera arruntaren % 10,4.

Aurrezpen garbiak, bestalde, 9,8 milioi euro jo zuen.

2013an, 16,7 milioi euroko inbertsioak egin ziren (28,4 milioi, maila bateratuan). Haien artean daude Arantzadiko eta Trinitariosko parkeak (Europako finantzaketa dutenak), Etxebizitza Planaren jarduketak Alde Zaharrean, Etxabakoizko igogailuaren lanen bukaera, Txantreako erretiratuen elkartearen eraikitzea, zoladurak hiriko hainbat tokitan berritzea, berrikuntzak ikastetxeetan edota Labriten bastioia zaharberritzea (Europako finantzaketa duena Fortius proiektuaren barnean). Diru-sarrera arruntek 179,1 milioi euro jo zuten (tokiko sektore publikoaren 186,2 milioi euro bateratu). Diru-sarreraren mailari esker, azken ekitaldietan izan duten egonkortasunari esker, eta baliabide publikoak austeritatez eta eraginkortasunez erabiltzeko hartu diren neurriei esker, ordainketak inolako diruzaintza-tentsiorik gabe kudeatu ziren eta ohiz kanpoko finantzaketa-biderik erabili behar izan gabe.

Iruñeko Udalak guztira 1.022 euro gastatu zituen biztanleko 2013an, eta horietatik, 144,1 euro inbertsioetarako izan ziren. Ia gastu horren erdia, 504 euro, ongizate komunitarioarekin lotuta egon zen, hau da, hirigintza, ingurumena, hezkuntza, kultura, kirola..., eta % 22 (225 euro), segurtasun, babes eta gizarte-sustapenarekin. Bestalde, biztanle bakoitzeko diru-sarrera 1.000 euro izan zen. Diru horren % 28,7 udal-eskumeneko zergetatik etorri ziren; % 48, transferentzia arruntetatik (Hiriburutza Agiria, Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetako partaidetza eta beste zenbait ekarpen), eta % 18, zerbitzuak eman, jarduerak egin eta jabari publikoa erabiltzeagatik kobratutako tasa eta prezio publikoen, ondasun higigarri eta higiezinaren salmentaren, ondareko diru-sarreraren eta aurrerakin zein maileguren itzuleren bitartez.

Aurrekontua betetzeari dagokionez, 2013ko ekitaldiko aitortutako betebeharrak bateratuak 201,3 milioi euro izan ziren, hau da, 213,9 milioi euro jo zuen behin betiko aurrekontu bateratuaren % 94,1. Gastu-ehunekorik handiena (% 40,3) langileria-gastuari dagokio; % 32,9, ondasun arruntei eta zerbitzuei, eta % 11,6, azkenik, inbertsio errealei.

Ordenantza fiskalak eta prezio publikoak

Iruñeko Udaleko zergak, tasak eta prezio publikoak, oro har, **% 1,5 eguneratu ziren 2014an**, 2013ko abuztuko KPIa aplikatuta. Ez ziren gizarte-tarifak igo, hau da, apartamentu babestu eta larrialdietakoak, etxebizitza komunitarioak, gizarte-jantokia eta etxez etxeko laguntza, ezta alde urdineko prezioa ere; ez garabi-zerbitzua, 2013an doitu baitzen.

Ordenantza fiskalek eta prezio publikoen arauak 250 eurora (% 46) jaitsi zuten merkataritza-, industria-, zerbitzu- eta lan-jardueretarako aparkamendu-txartelaren tarifa (lehen, 466,20 eurokoa zen). Beste nobedade bat % 10eko deskontuak izan ziren, bai langabeendako bai gazte-txartelaren titularrendako. Aldaketak 9. arauan ezarri ziren eta, besteak beste, Civivox sareko ikastaroei aplikatzen zaizkie. Antzeko deskontuak aplikatzen dira jada aurreko urtetik udal-kirolguneen abonamenduetan eta Gayerre Antzokiko sarreretan. Era berean, % 75eko hobaria ezarri zen Joaquín Maya Musika Eskolako aretoak instrumentuekin erabiltzeko tarifetan, goi-mailako ikasleek aretoak erabil ditzaten errazte aldera. Azkenik, 17. ordenantzaren tarifa batzuk kendu ziren, zein eta elikagaien eta ingurumen-laginen gaineko saiakuntza kimiko eta mikrobiologikoei buruzkoak.

EIOIZ edo eraikin, instalazio eta obren gaineko zergan, eta obra, jarduera eta irekiera lizentzietan, oro har likidazio-araubidea ezarri zen. Horregatik, autolikidazio-araubidea obra-lizentzia laburtu eta jakinarazietara mugatu zen, bai eta aurretiazko jakinarazpena edo erantzukizuneko aitorpena bakarrik behar duten

obretara ere. Horrela, zerga-betebeharrak betetzea errazten zaio zergadunari, eta zergak kontrolatzeko prozedurak sinpletzen dira.

2014ko urrian, 2015erako **Ordenantza fiskalak eta prezio publikoak arautzen arauak** aldatzeko proiektua onetsi zen. Iruñeko Udalak zergak, tasak eta prezio publikoak izoztuko ditu, iduri baitu zero izanen dela edo are txikiagoa Kontsumorako Prezioen Indizea (KPI) urte bukaeran, indize hori hartu ohi baita erreferentziatzat tasak eguneratzeko. Datorren urteko alaketetako bat izanen da hiri-kontribuzioan aplikatzen den karga mota aldatzea, horri esker kontribuzioak eragiten duen diru-bilketa osoa mantenduko baita, nahiz eta balioa galtzen joanen den hiriko higiezinaren katastro-balioa.

Udalaren sei eraikinen hezkuntza-erabilerari buruzko hitzarmena

Iruñeko Udalak eta Nafarroako Gobernuak hitzarmen bat sinatu zuten, udalaren jabetzapeko sei eraiki bere osoan edo zati batean lagatzea formalizatzeko, haietan hainbat irakaskuntza-maila edo -modalitatetako hezkuntza-zerbitzuak emate aldera. Lagapena 25 urteko eperako da eta doan. Hitzarmenarekin bat, ikastetxe publiko izandako honako eraikin eta barrutiak lagako dira: **Fernando Remacha, Blanca de Navarra, María Ana Sanz, José María Iribarren eta José Vila Marqués, bai eta Compañía kaleko 6an zeuden antzinako eskolen eraikina ere.**

Ikastetxe publiko izaniko bi eraikin bere osoan laga dira hezkuntza-zerbitzuak emateko: Fernando Remachan emanen dira Biurdana Bigarren Hezkuntzako Institutuak ematen dituen irakaskuntzak, eta María Ana Sanzen, berriz, María Ana Sanz Lanbide Heziketa Integratuko Ikastetxe Publikoaren klaseak. Beste lau eraikinak ere ikastetxe publikoak izan dira, hots, Blanca de Navarra, José María Iribarren, José Vila eta Compañía kaleko eskolak, eta guztiak zati batean laga dira, hau da, bestelako zerbitzuak emateko erabiltzen diren gelak izan ezik.

Udalaren eraikinak eta lokalak Inbentarioaren balioa, guztira

2008. urtea	630.973.858 euro
2009. urtea	681.326.475 euro
2010. urtea	746.849.296 euro
2011. urtea	778.212.796,95 euro
2012. urtea	786.054.852,13 euro
2013. urtea	795.155.430,85 euro
2014. urtea	799.380.216,96 euro

Udal-eraikin eta -lokal guztien balioa

	2010	2011	2012	2013	2014
Bulego Eraikinak	13.238.444,53	13.253.448,23	13.280.810,10	13.280.810,10	13.441.411,47
Merkataritza Eraikinak	6.772.371,57	6.772.371,57	6.772.371,57	6.772.371,57	6.772.371,57
Kultur edota Gizarte Eraikinak	46.685.494,63	49.638.890,22	50.724.447,67	52.259.033,69	52.986.252,78
Irakaskuntza Eraikinak	84.520.920,77	88.679.075,66	89.085.106,74	89.603.059,42	90.273.260,61
Kirol Instalazioak	44.128.414,97	42.093.580,32	42.093.580,32	42.427.751,20	42.503.220,72
Osasun Eraikinak	10.355.125,10	11.051.764,87	10.946.587,75	11.048.520,43	11.105.765,41
Beste hainbat zerbitzu	19.494.664,94	19.495.779,30	19.195.273,25	19.574.764,85	19.740.149,17
Zerbitzu Galeria	14.181.049,06	14.444.89304	14.602.340,36	14.602.340,36	14.602.340,36
Etxebizitza	30.746.777,52	30.743.413,90	30.899.709,68	31.002.112,69	31.044.755,54
Aretoak	16.171.311,73	17.868.544,95	18.755.302,63	18.998.171,32	19.064.057,07
Trastelekuak	383.507,35	383.507,35	383.507,35	383.507,35	383.507,35
Garajeak	2.207.868,77	2.207.868,77	2.207.868,77	2.207.868,77	2.207.868,77
Kioskoak	4.507,60	1.803,04	1.803,04	1.803,04	21.629,37
Beste hainbat eraikuntza	3.782.281,17	6.306.610,26	6.312.383,05	6.312.383,05	6.221.499,51
ERAIKUNTZAK, GUZTIRA	292.672.739,71	302.941.551,48	305.261.092,28	308.474.497,84	310.368.089,70

Europak finantzaturako proiektuak

Ekimena/Programa Funtsa*	Proiektua	Gauzapen- aldia	Aurrekontua Iruñeko Udala (E)**	Europako Finantzaketa (€)
SAVE programa	Energia Agentziaren sorrera	1997-2000	408.000	171.360
Kohesio Funtsa	Arga ibaiari buruzko Plana	1996-1999	6.390.000	5.112.000
Europar Gizarte Funtsa	YouthStar CuatroVientos proiektua	1996-1999	830.000	415.000
URBAN-FEDER ekimena	URBAN II Iruña Programa: Alde Zaharra - Arrotxapea	2001-2008	23.185.000	11.592.500
Nafarroako PAB	Monjardin bidea	2000-2006	7.000.000	3.500.000
Nafarroako PAB	Isaac Albéniz kaleko irisgarritasuna	2006-2008	836.000	418.000
Kohesio Funtsa	Iruñeko ibaiei buruzko Plana	2000-2006	10.800.000	8.640.000
URBACT-FEDER programa	Herritarrek udaletan parte hartzeko sarea	2005-2007	96.000	48.000
Europar Gizarte Funtsa	Emakume etorkinak prestatzeko proiektuak eta enplegua hiri-merkataritzan sustatzeko ituna	2007-2010	855.000	427.500
URBANA-FEDER ekimena	Milagrosa Auzoa Hiri Biziberritzea	2007-2013	3.014.000	1.507.000
Kohesio Funtsa	Ingurumen-jarduketak Iruñeko	2007-2013	9.610.000	7.688.000

	ibaian			
Energia Adimenduna - Engage Proiektua Programa	Hiriaren konpromisoak klima-aldaketari aurre egiteko	2010-2012	99.694	74.770
Espainia-Frantzia-Andorra mugaz gaindiko lankidetzaprograma	Fortius Proiektua-Iruñeko eta Baionako gotorleku-ondarearen kultur eta turismo balorizazioa	2012-2014	3.915.067	2.544.793
FIESTA proiektua Europar Partzuergoa Italia, Bulgaria, Kroazia eta Ziprerekin. Deialdiak: VII. Esparru Programa IEE (Energia Adimentsua Europan)	Energia-auditoriak eta etxe-sektorean aholkularitza sustatzeko programa. Etxeetan familiei energia aurrezten laguntzea da xedea, haien portaeretan eta erabakietan eraginez, etxetresna berriak erostean; seme-alabak dituzten eta, aldi berean, etxebizitza sozialetan bizi diren familientzat.	2014-2017	162.084	121.563
Guztira			67.200.845	42.260.486

* Taula honetan ez dira zenbatu Gizarte Ongizate eta Kirol Alorrak enpleguaren arloan kudeatzen dituen beste hainbat programa (lantegi-eskolak, prestakuntza-ikastaroak...), zeinek Europatik jasotzen baitute finantzamendua, Nafarroako Gobernuaren Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bidez.

** Gutxi gorabeherako kopuruak. Grisean margotutako proiektuak bukatu dira eta bere osoan likidatu dira. Gainerakoak betetzen ari dira edota, behin bukatuta, azken saldoa noiz jasoko zain.

Hilerria

Iruñeko San Jose hilerrian gorpuak ehortzi eta errausten dira (eta ondotik, gorpuak desehorztzen, berrehorztzen zein gorpuzkinak errausten dira) betiere behar bezalako baldintzetan higieneari eta osasunari dagokienez, errespetuz eta garbitasunez; barrutia, gainera, zerbitzu mota hori eskaintzeko moduko baldintzetan mantentzen da estetikari, garbitasunari eta kontserbazioari dagokienez, eta herritarrek egindako informazio-eskariei, edo bestelakoei, erantzuten zaizkie.

2014an, gorpu-eramateak % 12,54 igo ziren; 2.500 baino gehiago, guztira. Errausketak nabarmen hazi ziren, % 13,9; 2013an 1.568 izan baitziren, eta 2014an, berriz, 1.786. Errausketak gorpu-eramateen % 70,3 izan ziren, eta urtetik urtera, ehunekoa gora doa. Gainerako ehorzketak ere igo ziren, baina kopurua ez da horren nabarmena gorpu-eramate guztien aldean. Nitxo-ehorzketek % 3,95 egin zuten gora (481tik 500era), panteoi-ehorzketek, berriz, % 23,8 (2013ko 189tik 2014ko 234ra), eta lur-hobiek % 4,26 (19tik 20ra).

Desehorzketek, bestalde, ia % 14 egin zuten behera, nitxo gutxiago hartzen baita errausketa-labea ezarri zenetik. Zehazki, 1.225 desehorzketa egin ziren, eta aurreko urtean, berriz, 1.396. Behera egin dute, halaber, beste hilerri batzuetako desehorzketek (254tik 84ra), berrehorzketek (139tik 106ra), eta gorpuzkin-errausketek (2013an, 328, eta 2014an, berriz, 240). Hezurtegi bateratuan egindako desehorzketak bakarrik igo ziren, 675etik 795era egin baitziren.

Ehorzketak	2010	2011	2012	2013	2014
- Nitxoak	534	560	510	481	500
- Lurra	29	17	20	19	20
- Panteoia	218	220	197	189	234
Gorpu-errausketak	1.336	1.440	1.500	1.568	1.786
GUZTIRA	2.117	2.237	2.227	2.257	2.540

Desehorzketak	2010	2011	2012	2013	2014
- Beste hilerri bat	217	241	245	254	84
- Hezurtegi bateratua	701	1.133	686	675	795
- Berrehorzketak	166	149	134	139	106

- Gorpuzkien errausketak	264	226	220	328	240
GUZTIRA	1.348	1.749	1.285	1.396	1.225

Abenduan, hilerrian 2.410 nitxo libre zeuden, aurreko urtean baino 488 gehiago (lau altueratik gorako libre guztiak ezabatu ziren); horrez gain, 34 lur-hilobi eta 86 kolunbario (horietako 7 errauts-kolunbario) zeuden herritarrendako erabilgarri.

Iruñeko hilerriak eskaintzen dituen zerbitzuen diru-sarrerak 919.020,78 euro izan ziren, aurreko urtean baino % 1,7 gehiago, 903.581,47 euro bildu baitziren. Kopuru horiek panteoiak enkantean ateratzen ez diren urteetako zenbakien antzekoak dira (2009an, 942.388,77 euro bildu ziren, eta 2011n, 894.480 euro guztira), ez baitira ia aldatu ordenantza fiskaletako tasak azken ekitaldian, eta gorpu-eramateen igoerak ez baitira nabarmenak izan ondorio ekonomikoei begira.

Urteko azken hiruhilekoan, Iruñeko Udalak eta Nafarroako Gobernuak lankidetzaz hitzarmen bat sinatu zuten, **1936ko gerra zibilak eta frankismoak Nafarroan eragindako biktimen gorpuzkin ez erreklamatuak** Iruñeko San Jose hilerrian **ehorzteko**. Abenduan, horretarako eraikitako panteoian hamar pertsonen gorpuzkinak ehortsiz ziren, hamarrak ere gerra zibilak eta frankismoak eragindako biktimak. Panteoia hilerriko Santa Felizia kalean dago, 27 bis nitxo taldearen izkinan. Panteoia kanpoaldean 3 x 3 metro da, hormigoi armatuz egina, eta granito harri beltz minez estalia. Eskuinean 2,60 x 3 metroko guneko garden bat finkatu da, zeinak 45 zentimetroko zabalera duen banku jarraitu bat baitauka, in situ hormigoi armatuz egina, eta granito harri beltz minez estalia. Gune horren aurrean harrizko monolito gris bat dago, zuzenean harrobitik ekarria. Honatx neurriak: 2,60 metro luze; 0,50 metro zabal, eta 2,80 m garai. Panteoiaren inguruan eremu lorategiduna dago. Barnean, hormigoizko 4 apalek 0,80 x 0,70na metroko 6 albo-gune eragin dituzte, eta 0,80 metroko zabalera duen erdiko pasabide bat ere bai. 10 kutxa sartzen dira apal bakoitzean; 60 gorpuzkin, alegia.